



Esp. kodea: 2017SAPL0010

Gaia: PLENOA 2017/12/05
Hasiera eguna: 2017/11/28

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko abenduaren 5a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko azaroaren 7a egindako bileraren akta onartu du.

2.- HISTORIA ETA ARKITEKTURA ONDAREAREN KATALOGOTIK, KULTURA INTERES OROKORREKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDATIK, GOMESTIO BASERRIA KENTZEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du_Uribarri auzoa 32an dagoen Gomestio baserriaren eraikina Arrasateko Plan Orokorren Historia eta Arkitektura ondarearen katalogotik, kultura interes orokorreko ondasun higiezin zerrendatik, kentzea hasiera batean ontzat ematea.

3.- ZARATA MAPA BEHIN BETIKOZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Arrasateko Zarata Mapa behin betikoz ontzat ematea.

4.-IRAILAREN 30EAN 2017 URTEKO AURREKONTUAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

Osoko bilkurak honen berri hartu du.

5.-TGBAK 2017KO 3. HIRU HILABETEAN ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Osoko bilkurak honen berri hartu du.



Esp. kodea: 2017SAPL0010

Gaia: PLENOA 2017/12/05
Hasiera eguna: 2017/11/28

6.- 2016EKO KONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2016ko kontu orokorraren espedientea.

7.- 2018 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak erabaki du aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta kontrako 10 botorekin (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) hasiera batean onartzea 2018ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu UDALAREN beraren AURREKONTUA eta ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA (35.649.758,18 € guztira, UDALAREN BERAREN AURREKONTUA, 32.247.058,18 € eta ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA, 3.442.624,28 €), aurrekontu bakoitzaren exekuzio arauekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

8.- 2018RAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA

Osoko bilkurak erabaki du lanpostuen zerrenda onartzea aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) kontrako 1 (Irabazi) eta 9 abstentziorekin (EH Bildu eta Baleike)

9.-2018KO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA

Osoko bilkurak erabaki du plantilla organikoa onartzea aldeko 11 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE) kontrako 1 (Irabazi) eta 9 abstentziorekin (EH Bildu eta Baleike)

10.- HERRITARREN DEFENTSAN: KALITATEZKO GARRAIO PUBLIKOAREN INGURUAN IRABAZI, BALEIKE ETA EH-BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Mozioa ez da onartua izan aldeko 10 boto (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta kontrako 11 botorekin (EAJ-PNV eta PSE-EE).

11.- HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO ADIERAZPEN



Esp. kodea: 2017SAPL0010

Gaia: PLENOA 2017/12/05
Hasiera eguna: 2017/11/28

INSTITUZIONALA.

Adierazpen instituzionala irakurri da.

Arrasaten, 2017ko abenduaren 5ean

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta